

ARABAKO ERRIOXA

ARABA



A•43 Esperaleko eremua

Arabako Errioxaren erdi-erdian kokatutako enklabe eder hau gure autonomia-erkidegoaren hegoaldeko muga da. Gune honetan meandro zabal bat eratzen duen Ebro ibaiak baldintzatzen du paisaia, legar-hobiak eta ibai-biltegiak sortuz. Ibaiertzak zuhaitz- eta zuhaixka-multzo handi batek babesten ditu: haltzak, makalak, lizarrak eta sahatsak, besteak beste. Ibaiaren higadurak eraturako ezponda malkartsu bat, ibaiaren ertzetik doa: eremu ezegonkor eta lehor horretan landaredia urria da, eta funtsean sasi meheek osatzen dute. Gune horrek ibaiertz-inguruneetako faunaren interes handia eta dibertsitatea du, eta bereziki garrantzitsua da Mediterraneoeko fauna.



A•44 Dueñaseko pinudia

Zereal-laborantzez eta mahastiez inguratutako enklabe txiki hau gune horretako jatorrizko basoaren uharte bat izateaz gain, gure Erkidegoan gaur egun dagoen Aleppo pinuaren baso autoktono bakarra da.

Toki honetako ingurunea Mediterraneo tipikoa da: pinudi-eremuak eta era askotako sasidun soilguneak (erromeroak, ezkaia, abariztiak eta estrepa) aldizkatuta. Gune horiek inguruko faunak aurki dezakeen aterpe bakarra dira, nekazaritza intentsiboak inguratzen baitu. Espezieen aberastasuna eta aniztasuna, batez ere gardatxoak edo arrano txikiak bezala Mediterraneoakoak direnena, nabarmena da gune horretan; hori dela eta, beharrezkoa da inguru hori enklabeak dituen arrisku larrietatik babestea, bereziki sasien eta uztondoen erreketatik eta laborantzaren erasotik babestea.